

HEZIKETA MILURTEKO BERRIAN – GIPUZKOA 2020

1. SARRERA

- Gipuzkoako lurralde historikoan 2020. urteari begira gauzatuta egongo den milurteko berriko heziketa-ereduari buruzko lan bat egitea, zaila izateaz gain, erabat alferrikakoa da, gure gizarteak epe horretan izango duen bilakaera aurrez ikustea ezinezkoa da eta.
- Beste alde batetik, jazo diren eta jazotzen ari diren aldaketen eta gertaeren aurrean sentiberatasunik ez izatea eta geure ohiko irizpideetan gelditzea, heziketa-prozesurako ekartzen dituzten ondorioak aztertu gabe, jarrera zentzugabea eta suizida da eta ez du inondik ere agertzen etorkizunari ilusioz beterik aurre egin nahi dion gizarte arduratsu bat.
- Bi gogoeta-eremu horien artean lan hau aurkezten dugu. Lanean hainbat azterlan espezializatutan bildu izan diren gaur egungo gizarte-fenomenorik garrantzitsuenak eta heziketa-prozesura ekar ditzaketen ondorioak aztertu nahi dira. Baina azterketa horien gaitetik, ezer egin gabe gertaerak ikusi beharrean, hezitzaileak garen aldetik eta horren jakinaren gainean dagoen gizartea osatzen dugunaren aldetik, protagonismo historikoari loturiko jarrera bat geure egin beharra agertu nahi da lan honetan.
- Mondragon Unibertsitatearentzat zehaztutako misioan bertan “gizartea aldatzeko konpromisoa” onartzen da. Jarrera hori aro berrietara egokitzea baino askoz gehiago da; aldaketak sorraraztea dakar berekin, norabidea seinalatuz edo, gutxienez, gizartean gaur egun dauden desorekak gaitzertzerantz aldaketak eramatea edo orientatzea dakar berekin eta hori gizarte orden justu eta solidario bat arautu behar duten printzipioetan oinarrituta.
- Dagoeneko inork ez du zalantzan jartzen gizarte-aldaketa iraultzaileei aurre egin behar diegula eta horiek SISTEMA BERRI bat ekarriko dutela; hau da, ezezaguna den eta oraingoaren aldean bestelakoa izango den gizarte-eredua ekarriko dutela, egiturazko aldaketa sakonak izango dituen eta oreka aldakor eta dinamiko berri bat sortuko duen gizarte-eredua. Lan honetako 2. atalean aldaketa ekarriko duten faktoreetako batzuk aipatuko ditugu.
- Heziketa-ereduan aldaketa horiek izango dituzten ondorioek, edo hobeto esanda, aldaketa horiei jakinaren gainean aurre egiteko beharrezko heziketa-jarrerak barne-egituraren aldaketa sakona behar du, heziketako eduki, helburu, metodo eta antolaketa-sistema berriei erantzungo dien aldaketa sakona, hain zuzen ere. **Heziketa-ereduaren** benetako BIRMOLDAKETA egin behar da, gizartearen beste egitura batzuen antzera, gizarte berriaren eskakizunei aurre egiteko. 3. atalean hortik datozen ondorio batzuk eta beharrezko aldaketa batzuk aztertuko ditugu.
- Askotan gizarte berriaren aldaketez eta eskakizunez hitz egiten da baina neurri birekin jarduten da. Batetik, berbek edo ahoz esandakoek jarrera aurreratuetan kokatzen gaituzte; bestetik, ordea, gure jardun zehatzaren bidez ohiko posizioei eusten diegu; are gehiago, aldatzeari zailtasun edo erresistentzia sakonak jartzen dizkiogu. 4. atalean aldaketaren aurrean egon daitezkeen JARREREZ arituko gara.

- Oraingoaren tamainakoa den gizarte-aldaketa bat ezin da egin pertsona bakoitzari edo arlo bakoitzari bakar-bakarrik eta bere sentiberatasun handiago edo txikiagoaren arabera aurre egiten uzten. Behar-beharrezkoa dugu “**denona den borondatea**” aldaketei aurre egiteko eta gainera heziketa-arloak ekoizten duten enpresek dituzten exijentzia ekonomikoekin aldera daitezkeen exijentzia ekonomikoak, lehia-parametroei erantzuten ez badie “merkatutik atera dezaketenak” alegia, ez dituela jabetuta eta ohartuta. Euskadiko tamainak eta, zehatzago, Gipuzkoakoak eremu egokia eskaintzen dute sistema guztiari bilakaera egiten lagunduko dion eta “**denona izango den borondate**” hori eratzeko.
- Hurbil egoteak eta elkar ezagutzeak, denona izango den borondateak, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta, lurralde berezia den aldetik, Gipuzkoaren ingurumariak eta tamaina nahiko garrantzitsu eta aldi berean erabilgarriak eremu ezin hobea eskaintzen dute aldaketa-prozesuak hasteko.
- Ekimen publikoak asko baldintzatzen du heziketa-sektorea eta sistema guztiaren erabateko laguntza duten arlo publikoen aldeko jarrerak izugarri lagun dezake bilakaera-prozesu garrantzitsu bat hasten. 5. atalean honetan jarduteko zenbait ideia proposatzen dira, hasieran goi-mailako irakaskuntzaren alorrari bakarrik dagozkionak.
- Azkenik, 6. atalean, ondorio gisa, txostenaren edukiaren laburpen txiki bat egiten da.
- Lan honen xedea ez dela gaur egungo gizarte-fenomenoen azterketa zehatz eta xehea eskaintzea aipatu behar da. Badira, izan, izaera horretako lan asko, egoki dokumentatutako erreferentzia bibliografiko moduan erants daitezkeenak. Aitzitik, helburuak oraingo gizartearen aldaketarik garrantzitsuenetan atentziora ipintzea eta borondateak mugitzea dira. Azken hau “denona den borondatea” era dezaten barne-aldaketak hasteko, “bakarka inor ez dela salbatzen” jabetuta eta zerbitzua eskaini behar diogun gizarteari modu egokian erantzuteko denok elkarrekin saiatu eta ahalegindu behar dugula ohartuta.

2. ALDAKETARAKO FUNTSEZKO FAKTOREAK – OREKA BERRIA

- Azken urte hauetan gertaturiko egiturazko eraldaketek antolaketa-bide berriak eta gizarte-era berriak sortu dituzte eta hauen lehen agerpenak zur eta lur ikusten ari gara. Aldarazteko duten ahalmena hain handia izanik, ahalmen horrek eskaintzen dituen aukerak zeintzuk diren eta gaur egungo ezaguerak modu arrazionalen ustiatzea nolako “sakontasuneko karga” den apenas apur bat ikusten besterik ez digu uzten.
- Beste garai batzuetan garapena mugatzen zuen elementua ezaguera zientifiko edo teknologikorik eza izan bazen, gaur egun atzeratzen duen elementua dauden ezaguerak eskaintzen dituzten aplikazioa aurreratuak eratzeko irudimenik eza izan daiteke.
- Teknologia hauen erabilera zabal-zabala denbora-kontua da eta, adierazi dutenez, datozen 10 urteetan Europak bake-garaietan inoiz izan duen eraldaketarik handiena izango du. Aro berri baten atarian gaude beraz.
- Bat baino gehiago dira, Europar Batasunaren iritziz, aldaketa hau sorraraziko duten eta hurrengo komentarioetan jasoko ditugun faktoreak.

2.1 INFORMAZIO GIZARTEA – NTIC'S

- Informazio eta komunikazio-teknologia berrien erabilera zabal-zabala gertatzen ari den aldaketa-prozesuaren funtsezko giltza da eta horrek zuzen-zuzenean eragiten du edozein organizazioren kudeaketan eta jardunbidean. Teknologia erabat “horizontala” da, antolatzeke edozein prozesutan esku-hartzen duena.
- Ez ditugu azpimarratuko teknologia hauen garrantzia aski ezagunak direlako. Orain bada, oraindik gaude eduki dezaketen erabileren hastapenetan eta hauen garapenak errotik aldatuko ditu harremanetarako gure arauak.
- Teknologia berriek heziketa-prozesuan duten eragina etorkizuneko heziketaren funtsezko gakoa da. Horiek erabiltzeak hezkuntza-komunitateko kideen arteko komunikazioa ahalbidetzen duen **bitartekoa** dakar, baita edukientzako eta ikaste-prozesuarentzako **euskarria** eta azkenik prozesu horretarako **laguntza eta baliabideak**, hau da, mundu guztiko ezagutzara zabalik dagoen leiho bat.
- Informazio eta komunikazio-teknologiek espazio-denbora binomioa apur dezaketenez gero, profesionalek etorkizunean lanbide-bizitza guztian etengabeko informazioa jasoko duten euskarri eta bitarteko garrantzitsuena izango dira. Hortaz, heziketatik bertatik ikasteko era berri honetara pertsonak egokitzen joan daitezen behar-beharrezkoa da.

2.2 IRAULTZA ZIENTIFIKO ETA TEKNIKOA

- Zientziaren eta teknologiaren edozein adarretan gaur egun aurrerapen izugarria gertatzen ari da eta horretan badago, zalantzarik gabe, ordenadoreek eskaintzen duten modelizaziorako eta kalkulurako gaitasuna. Ordenadoreak, kalkulu-tresna den aldetik, garapen zientifiko-teknologikoari bera gabe ezinezkoak izango liratekeen eta ezin susma litezkeen aukera handiak eman dizkio.
- Hau bezalako txosten batean gizartearen egitura erabat alda dezaketen eta, hortaz, heziketa-prozesuak kontuan hartu behar dituen aurrerapenen multzoa biltzea zaila izango litzateke. Beraz, nire ustez aldaketa handiak ekarriko dituzten aspektu batzuk aipatuko ditut.

* **BIZITZAREN ZIENTZIAK**

- . Gizakiaren genoma ondo ezagutzeak eta ingeniariak genetikoak orain arte kronikoak izan diren gaixotasunak gainditzen asko lagunduko dute eta horrek eragin handia izango du bizi-itxaropenean. Elikagaien ekoizpenak gosea kendu ahalko du lurretik. Horiek aurkikuntza eta garapen zientifiko berriak izanik, aplikazio aurreratuaren atarian daude eta guztiz zabaltzen eta hedatzen direnean gizarte-bizitza aldatuko dute.

* **MIKROTEKNOLOGIA ETA NANOTEKNOLOGIA**

- . Arlo teknologikoan bi teknologia hasi berri hauek, euren aplikazioak ere hasi berriak direla, produktuetan eta ekoizteko prozesuetan eragin handia izango dute. Kontua dimentsio txikiko sistema konplexuak sortzea da; hau da, bai makinetan bai prozesu biologikoetan, ezin pentsa daitezkeen lekuetan sar daitezkeenak, eta leku horien funtzionamenduz jabetu, informazioa igorri eta aurrea hartzeko unean-unean eragin dezaketen sistemak sortzea.
- . Besteak beste, funtzionamenduaren optimizazioak, segurtasunak eta egon daitezkeen akatsen prebentzioak makinaren kontzeptuari bestelako dimentsio bat emango diote, baita horien funtzionamendu ezin hobeari ere.

* **KONPLEXUTASUNAREN ZIENTZIA BERRIAK**

- . Enfoke sinplifikatzaile, murriztaile eta mekanizista duen zientzia klasikoaren eskemak ginetik gainditzearen aurrez aurre beste alor zientifiko berri batzuk sortzen eta azalartzen ari dira; hala nola, sistemen teoria, biologia, sistema irekien termodinamika, kontzientziaren, ezagueraren eta pertzepzioaren teoria, konplexutasunaren matematikak (kaosaren teoria, fraktalen geometria, topologia, ekologia).
- . Jakintza-alor horiek, ordenadore modernoaren modelizaziorako eta kalkulurako gaitasunarekin batera, gizakien eta gizarte-fenomenoak ulertzeko bidean gero eta gehiago sartzen ari dira; hau da, oraintsura arte aditu-aditu jantzien jakintzetan edo alorretan erabat berezita egon diren eskema, metodo eta jarrera murriztaileetatik teorizatze eta haietaz ohartzeko oso zailak izan diren gizakien eta gizarte-fenomenoak ulertzeko bidean gero eta gehiago sartzen ari dira.

- . Hasi berriak diren alor horiek guztiek etorkizun hurbilean eraman gaitzake gizakien eta gizarte-fenomenoak ulertzeko gaitasunean aldaketa erabatekoak izatera eta aurrez ezin ikus daitezkeen gizarte-mailako eta antolaketa-mailako aldaketak etor daitezke horietatik.

2.3 GLOBALIZAZIOA, MUNDIALIZAZIOA

- Oso ezagunak dira ekonomiaren nazioarte-mailako bihurtzearen edo globalizazioaren ondorioak: mugak eta arantzelen hesiak kentzea, herrialdeen arteko ondasunen eta zerbitzuen truke masiboa, lehiatzeko abantailen bila jarduera ekonomikoa lekuz aldatzea eta lurraldeen espezializazioa.
- Horrek guztiak berekin elkarren dependentzia ekonomikoa eta benetako “**sistema ekonomiko mundiala**” sortzea dakar. Horrela bada, parte batean egondako aldaketa batek berehalako eragina du sistema guztian.
- Gizarteari eta gizakiei begira ere, prozesuak ondorio garrantzitsuak ditu, heziketaren alorrean zuzen-zuzenean eragiten dutenak. Aldaketa garrantzitsu batzuez arituko naiz.

* **ALDAKETA DEMOGRAFIKOAK**

- . Azken hogeitun urteetan mendebaldeko herrialdeetan eta, batez ere, Euskadin gizartea osatzen duten adin-taldeak erabat bestelakotu duen aldaketa demografikoa gertatu da. Urteko jaiotzen kopuruak % 65 inguruan egin du behera eta bizi-itxaropenak, bestalde, 5 urte baino gehiagoz handitu da. Horren ondorioz, guztiz aldatu da “piramide demografikoa”.
- . Biztanleria aktiboaren eta ez-aktiboaren arteko erlazioan aldaketa handia gertatu da eta, aurrez ikus daitekeenaren arabera, azken urteotako jaiotza-tasa txikiak datozen urteetan lanerako adinean eragina izan dezanean, lan-munduan sartzen den biztanlerian murrizketa garrantzitsua egongo da.
- . Instalaturako potentzial ekonomikoaren beharretarako ez dira nahikoak izango gure herriko biztanleriatiko pertsonak.

* **MUGIMENDU MIGRATORIOAK**

- . Garatu gabeko herrialdeetako biztanleak euren egoera txiroaz eta herrialde garatuetako ugaritasunaz eta murrizketa demografikoaz jabetu eta ohartu izana lehenago inoiz egon ez den migrazio-prozesu masiboa sortzen ari da.
- . Etorkinen uholdearen aurrean, mendebaldeko potentziak harrituta eta nahastuta daude, eskaintzen dituzten konponbideek, legerian adabakiak ipinita eta poliziaren ekintzen bidez, mugimendu garrantzitsu hori murriztu edo aurre egitea dutela helburu.

- Ekonomiaren globalizazioak eta informaziorako eta komunikaziorako mugak ezabatzeak eurekin ekarri dituzte gizarte-diferentziaz kontzientzia hartzea eta migrazio-mugimenduak. Globalizazioaren aurka goi-mailako nazioarteko bilera bat dagoenean izaten diren protestek agerian utzi dute gaur egungo gizartean egiturazko aldaketek eragiten dituzten ondorioei buruzko azterketa sakonik eza eta berau ezin da bakarrik alderdi ekonomikoetara mugatu; alderantziz, justizia sozial handiago baterako konponbideak ere kontuan hartu behar dira. Aldaketa horiek arautu behar dituzten baloreak berrikusi eta sendotu behar dira, egoera berrietara ere egokituz.
- Inmigrazioaren fenomenoak ez da mugimendu puntual iragankorra, egiturari eragiten dion prozesua da eta etorkizuneko gizartean ere egongo dela uste izan behar dugu. Hizkuntza aniztasuna eta arraza eta kultura askotako gizartea dira, besteak beste, etorkizuneko gizartearen ezaugarriak.
- Heziketa-prozesuak egoera berri honen aurrean jarrera bat hartu behar du, gizarte-integratzaileak, bertako kulturari kultura unibertsalari zabalik dagoela eusteko eta elkarbizitza-prozesu zabal batean beste kultura batzuk integratzeko baldintzak sortuz.

2.4 PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIOA GIZARTE GUZTIRA HELARAZTEA

- XX. mendeko eraldaketa sakonak bizi izan ditugun pertsonok jakin badakigu azken hamarkadetakako lorpenik handienetako bat ezagutza eta informazioa gizarte guztira helaraztea izan dela.
- “Aukera-berdintasuna” lortzeko eta, familien finantza-ahalmena edozein izanik ere, ezagutza-maila handiagoetarako aukerak biztanleria guztiari eskaintzeko errebindikazioa erdietsi izana joan zen mendeko lorpenik handienetakoa izan da.
- 40 urtetan lan-mundura sartzen zirenetik % 20k erdi edo goi-mailako ikasketak eta % 80k gehienez lehen ikasketak edukizetik oraingo egoera pasatu da, egun % 75etik gora direla erdi edo goi-mailako ikasketak dituztenak.
- Oinarrizko prestakuntzan lortutako maila honi “**informazio**” maila gaineratu behar zaio. Gaur egun edozein pertsonak du gizarte-fenomenoen berri eta baditu bere-bereak diren iritzi eta irizpideak bere prestakuntza eta informazio-mailatik abiatuta.
- Prozesu honek historian aurrekaririk ez duen aldaketa dakar eta aurreko lerroetan azaldutako aldaketa sakonak hortik datoz.

* **JAKINTZA GIZARTE GUZTIRA HELARAZTEAK BOTEREAREN DEMOKRATIZAZIOA DAKAR BEREKIN.....**

- Tradiziozko gizarte-antolaketetan talde bi bereizten ziren: gutxiengo batek zuzendu egiten zuen eta gehiengo batek agindutakoa bete egiten zuen. Hortaz, artezteko eta pentsatzeko funtzioa eta jarraibideak onartzea eta betetzea bereizita zeuden. Antolaketa hori bat zetorren prestakuntzako egiturekin.

- . Hezkuntzan eta informazio-mailan izandako aldaketak gizartea jarduteko arau horiek zaharkituta utzi ditu, erakunde batean parte hartzen duten pertsonak guztien ekineko eta euren egindako proiektuetarako lanaren eta jakintzaren ekarria egin nahi dute eta. Gizarte-erakundeen egiturak apenas hasi dira euren barne-aldaketarako prozesua burutzen guztienak diren proiektuetako partaidetzaren bidez. Erakunde politikoek, sindikatuek, erakunde erlijiosoek eta baita kapitala artezte-elementua duten erakunde ekonomikoek ere aurrerantz egin beharko dute.
- . Prozesu geldiezin horrek berebiziko eragina du hezkuntza-alorrean, pertsona prestatu beharko baita etorkizuneko jardunean eta gizartearen eraldaketan rol aktibo batez jokatzeko.
- . Hezkuntza-antolaketak berak modu sakonean eboluzionatu beharko du, irakasleak ematen dizkion ezaguerak oroimenaren bidez eta ezaguera horiek nora daramaten jakin gabe bereganatu besterik egiten ez duen ikaslearen hartzaile-rola edo paper pasiboa pertsona motibatu baten rol aktibo bihurtzeraino; hau da, ikasleak modu aktiboan parte hartu beharko du, irakasleekin batera, ezaguerak bereganatzeko lanean, ezaguera horietatik abiatuta benetako problemei soluzio bat ematen, gizartearen problemen eta beharrezan jakinaren gainean, bere ekimena problema horiek gainditzera zuzenduz.
- . Ezagutza edo jakintza eta informazioa gizarte guztira helarazteak gizartearen erakunde guztietan aldaketak izatea eskatzen du eta hezkuntza-egiturak aurrerikusi eta kontuan hartu behar du alde aurretik ezarritako postu estatiko batean sartzera mugatzen ez den eta berrikuntza eta aldaketa-prozesuan era aktiboan parte hartuz bere garapenaren eragile izango den pertsonaren rol berria.

2.5 OREKA BERRIA. GIZARTE SISTEMA BERRIA

- SISTEMATZAT ulertu ohi da elkarri eragiten dioten edo elkarrekin erlazionatuta dauden EGITUREN multzo koherentea, oreka dinamikoan dagoena eta, hortaz, egituretako bat aldatuz gero, nahitaez egokitu behar da sistema guztia oreka berri baten bila.
- Aldaketak eta egokipenak aldi luzeetan egin ahal dira, bilakaerazko egokipen arrunta gertatuz, edo bat-bateko aldaketak izan daitezke, aldi labur samarretan izaten direnak eta aldaketa iraultzaile deritzegunak.
- Historian zehar aldaketa estruktural sakonak egon dira, arinago edo mantsoago asimilatuak izan direnak. Horrelako aldaketen adibideak dira Amerikaren aurkikuntza, inprenta, baporezko makina, elektrizitatea eta abar.
- Normalean gerra-ekintzekin gertatu ohi izan diren aldaketa politikoek ekarri dituzte aldaketa iraultzaileak: Frantziako Iraultza, Sobietarren Iraultza, eta abar. Aldaketa iraultzaile horiek gizartean berehalako aldaketa sakonak eragin dituzte, sistema eta metodo berriak ezarriz eta gizartearen artezte-estamentuak aldatuz.
- Aldaketa iraultzaileek problema asko konpondu dituzte eta, orokorrean, gizarte-sistamarako aurrerapen historikoak izan dira, ordura arte ezezagunak ziren eta apurka-apurka aurre egin behar izan zaien problema berriak ere sortu dituztela.


- Aurreko orrialdeetan azaldutako aldaketa estruktural bakoitzak gizarte-sisteman aldaketa

handia sor badezake, horiek guztiak batera gertatzeak benetako **IRAULTZA** sortzen du.

- Datozen 10 urteetan, bake-garaian Europan izan den aldaketa historikorik handiena gertatuko dela esaten dute. Benetako aldaketa iraultzailea da, zorionez gerra-ekintzarik ez dakarrena. Aldaketa horrek gaur egungo gizarte-orekan aldaketa sakonak eragingo ditu, jokatzeko arau berriak izango dituen gizarte-mota berri edo eredu berri ezezagun bat sorraraziko du eta gaur egungo erregioen orekan ere aldaketak eragingo ditu, baita gizartearen estamentu zuzendarien konfigurazioan ere.

2.6 GIZARTEAREN GARAPEN OREKATUA

- Aipatutako aldaketa estrukturaletan “teknozientziak”, zentzurik estuenean hartuta, eragin berebizikoa du. Dena dela, gizartea printzipio filosofikoek eta ideologiek arautzen dute; horrela bada, horiek kultura eta balore batzuk eratzen dituzte eta hauek, era berean, giza eta gizarte-zientzien, zientzia politikoen eta abarren bilakaera jakin bat eragiten dute.
- Erantsitako grafikoan faktore horiek guztiek gizartean duten eragina eta gizartearen kontzeptuaren eta heziketaren kontzeptuaren arteko erlazio estua agertu nahi izan dira.
- “Teknuzientziaren” dimentsio bakarreko garapenak gizartean eragiten duten gainontzeko faktoreekiko erlazioan etenaldi edo haustura bat sortzen du, gizartearen kontzeptu berri baten sorreran aparteko garrantzia izan dezaketen desorekak sortuz.
- Hezkuntzako estamentuak, gizarteari estu-estu loturik egonik, ezin du prozesu hori bazterrean utzi eta heziketa-ereduan eragina izan behar du eta, besteak beste, derrigorrez izan beharko ditu kontuan, aldaketen aurrean, kultura, baloreak eta jarrerak, **“teknuzientzia akritikoa”** ematera mugatu gabe.
- Bereziki unibertsitateko estamentuak “gizarte eragile” aktiboa izan behar du orekan egongo den gizarte baten eraketan.



2.7 ERAGINA HEZIKETA PROZESUAN

- “Egitura mentalak” dira egitura guztien artean aldagaitzenak, ezagunari eusten baitiote babes seguru gisa, eta ezerosotasunak, exijentzia berriak eta gaur egungo erakunde “ezarrietan” aldaketak sor ditzaketen alor ezezagunetan barna sartzeko beldur izaten dira.
- Hezkuntzaren munduak etorkizunari begira egon behar du, etorkizuneko gizarte berrian eragin handia izango duten erak eta baloreak sortzen eta pertsonak prestatzen ari da eta.
- 2020ko eszenatokiari iraganean hezkuntza-sisteman egondako akatsak aztertuz eta gainditzeko asmoz edo etorkizunean aurre egin beharreko aldaketa iraultzailea kontuan hartuta begiratzea funtsezko erabakia da eta heziketa-proiektua enfokatzeko beharrezko abiapuntua.
- Dagoen ezagutza zientifiko-teknologikoaren eta bere aplikazioaren bilakabidea oso azkar ari da gertatzen eta ezin da hezkuntza ulertu **“ezagutza besterentzen duen eragile”** gisa, egonkorra balitz bezala eta gakoak irakasleen esku egongo balira bezala. Errealitate berriaren aurrean kokatu beharra dago eta heziketa-prozesuaren funtsezko gakoak errotik aldatu ere bai, etengabeko bilakaeran dagoen errealitate horren aurrean ikaslea kokatzeko, bai hasierako prestakuntzan bai etengabeko egokipenean.
- Gure garaian gertatzen ari diren aldaketa estruktural handietatik hezkuntzarako etor daitezkeen ondorio batzuk ikusi ditugu. Gaur egun dauden hezkuntza-egiturek, aldaketatxo didaktiko edo edukiei dagozkien aldaketa txikiak eginda, beren hartan jarraitu nahi izatea problemari aurre ez egitea besterik ez da.
- Hezkuntza-sistemak bere rol historikoari aurre egin behar dio, bizi garen garai honetan. Horrela bada, bai didaktika bai edukien aldetik egin beharreko aldaketei ekin behar die, oinarri berrietatik abiatuta eta beharrezko barne-aldaketa estrukturalak egiteko prest. Hezkuntza-ereduaren “Berringeniaritza” planteatu behar da, horrek barne-aldaketa handiak eta oraingo sistemaren “Birmoldaketa” ekar ditzakeela. Gizartearen egituretan gertatu izan diren birmoldaketa sakonek aldatu beharra agertzen dute eta aldaketa hezkuntzako estamentuari ere badagokio.
- Antolaketaren eszenatoki berriak sortzea “versus” dagoen antolaketa. Aurkaketa horren barruan, besteak beste, gai hauek planteatu beharko dira: zentralismoa-deszentralizazioa, “dinosaurismoa” edo atomizazioa eta gobernu-sistemak. Ezin diogu oraingo antolaketari eutsi eta aldi berean aldaketak egin nahi izan. Aldaketek nahitaez eragiten dute antolaketan.
- Heziketak eta gizarteak badute bataren eragina bestean ezinbestez eta, gainera, elkarren dependentsia estua dute. Horiek horrela, unibertitateak ezin du gizartearen gurdiaren atzetik joan, besterik gabe; aitzitik, ulertzen duen eta eredu desiragarri baterako aldaketa sorrarazten duen eragilea izan behar du.

3. HEZIKETAREN KONTZEPTU BERRIAREN EZAUGARRIAK _____

- Zenbait urtetatik hona XXI. mendeko beharrizanetara egokitutako heziketak izan behar dituen ezaugarriak seinalatzen ari dira.
- Askok dira arazo eta gai hauek aztertu dituzten azterlanak eta hemen horien lagin bat azalduko dugu.

3.1 HEZIKETARI BURUZKO NAZIOARTEKO BATZORDEAREN TXOSTENA (DELORS TXOSTENA, 1996)

- Aipatu txostenean jasotako orientabideak honako zutabe hauetan laburbil daitezke:

Ezagutzen ikastea

- . Ezagutzen ikasteak ikasten ikastea dakar berekin, arreta, oroimena eta pentsamendua landuz. Kontua ez da ezaguera sailkatu eta kodifikatu batzuk hartzea, baizik eta jakintzaren tresnak menperatzea. Ikasketa-mota hau gizakiaren bizitzaren bitartekoa eta xedea da aldi berean. Bitartekoa pertsona bakoitzak inguratzen duen mundua ulertzen ikasi behar duelako, horrela duintasunez bizitzeko, lanbide-gaitasunak garatzeko eta besteekin komunikatzeko. Xedea ulertzean, ezagutzean eta aurkitzean dagoen plazerak hura justifikatzen duelako.

Egiten ikastea

- . Ezagutzen ikastea eta egiten ikastea batera doaz eta ia-ia ezin bereiz daitezke. Dena dela, kontua ez da hainbeste biharko egunean lanbide-munduan lan jakin bat egiteko pertsonak prestatzea, etengabeko bilakaera duen inguru batean ezagutzak inplementatzeko gaitzea baizik. Aurrerapena berrikuntza bihurtzeko gai izan beharko dute eta hori ezinezkoa izango da besteekin lankidetzan aritzeko eta komunikatzeko beste gaitasun batzuk garatu gabe.

Elkarrekin bizitzen ikastea

- . Gero eta globalizatuago dagoen eta konplexuagoa den mundu batean elkarrekin bizitzen ikastea behar-beharrezkoa da, are gehiago kultura bat baino gehiago batzen direla kontuan edukita. Hala ere, bestea ezagutzeko lehenago norbere burua ezagutu beharra dago; hau da, norberaren identitatea, kultura, ingurua eta baloreak ezagutu behar dira lehenago; bide horretatik bakarrik jakingo du bestearen lekuan jartzen eta duen ezberdintasun kulturala ulertzen. Aniztasuna aberastasunaren sinboloa dela eta modu harmoniatsuan elkarrekin bizitzeko oztopoa ez delako ideia sustatzea beharrezkoa da.

Izaten ikastea

- . Heziketak pertsonaren garapen globalari lagundu behar dio, pertsonak bizitza guztian modu arduratsu eta autonomoan erabakiak hartu ahal izan ditzan. Etengabe aldatzen ari den mundu bati aurre egiteko irudimena eta sormena bultzatu behar dira.

- XXI. mendeko heziketari eutsi behar dioten lau zutabe horiei beste bat gaineratu beharko litzaioke: “ikasten ikastea” Federico Mayor Zaragozak honelaxe justifikatzen duena: *“...gure garaiko dinamikak herriko instalaziorik hoberenetan heziketarik onena izateko pribilejioa eduki duten graduatu unibertsitarioek enplegua sortzen eta besteentzako ongizatea lortzen lagun dezaten eskatzen du”*.
- Orientabide horietan jokoan dago pertsonaren dimentsio etiko eta filosofikoa. Alderdi horiek bere egin behar ditu heziketak eta, batez ere, aldaketa-uneetan, gizarte orden berri bat osatzeko uneetan.

3.2 GOI MAILAKO HEZIKETARI BURUZKO MUNDU MAILAKO BILTZARRA (UNESCO, PARIS 1998)

- UNESCOren ekimenez, Parisen, 1998ko urrian, Goi-mailako Heziketari buruzko Mundu-mailako lehen Biltzarra burutu zen. Bost egunetan 182 estatutako ordezkariak bilduta egon ziren XXI. mendeko goi-mailako heziketaren funtsezko oinarriez eztabaidatzeko eta akordio batera heltzeko. Norekin, norentzat eta zertarako, zein gizarte-eredurentzat eta zein mundurentzat izan ziren, labur esanda, eztabaidatu ziren gaiak.
- UNESCOren ekimen honek argi islatzen du goi-mailako heziketak aldatu eta bilakatu beharra duela, gizarte, egitura eta teknologia-mailan gertatu diren aldaketa handien ondorioz sortutako beharrian berriei behar bezala erantzuteko. Biltzarrak goi-mailako heziketak jarraitu beharreko orientabideak zehaztu zituen eta hori mende berrian modu arrakastatsuan izango dituen eginkizunei aurre egiteko ez ezik, gizon-emakumeei, gizarteei eta nazioarteko komunitateari etorkizun hobe baterantz eta gizakientzat egokiagoa izango den eta elkartasun handiagoa izango duen mundu zuzenago eta baketsuago baterako urratsak ematen laguntzeko ere bai.
- Hausnarketa, gogoeta eta eztabaidaren fruitu dira lana amaitutakoan Biltzarrak egindako eta onartutako Adierazpen Mundiala eta Lehentasunezko Ekintzen Markoa. Hurrengo lerroetan milurteko berrian goi-mailako heziketak izan behar dituen ezaugarririk garrantzitsuenak azaltzen saiatuko gara.
- Mundu-mailako Biltzarrak jasotako orientabideak honako hauek izan ziren:
- Goi-mailako heziketaren eginkizuna ikasleak heztea eta prestatzea eta ikertzea da, garapen orekatsuari ez ezik, gizartea hobetzen ere laguntzeko. Profesional kualifikatuak prestatu behar ditu, gizartearen egungo eta etorkizuneko beharrianetara etengabe egokituta egon daiteztenak. Baina, horrez gain, herritar arduratsuak hezi behar ditu, giza jardueraren alor guztietako beharrianei erantzuteko gai izango direnak. Federico Mayor Zaragozaren hitzetan “...goi-mailako heziketak pertsonaren garapen integralaren bidean lagundu behar du eta gizartearen etorkizun hobe baten alde jarduteko konpromisoa har dezaten herritar arduratsu eta informatuak prestatu”.
- Orobat unibertsitateen eta goi-mailako irakaskuntzako ikastetxeen funtzio etikoa azpimarratu behar da; izan ere, mundu guztian onartutako baloreak modu aktiboan zabaltzea dagokio, eta zehatzago bakea, justizia, askatasuna, berdintasuna eta elkartasuna zabaltzea. Komunitateetako, erregioetako eta, hortaz, nazioarteko komunitateko ongizatean eragina duten problemak azaltzen eta konpontzen lagundu behar du.

- Elitismoak ez du izan behar goi-mailako heziketaren ezaugarria. Heziketa horrek, gehien bat, merituetan oinarrituta egon behar du eta pertsona guztiei sarbidea erraztu behar die, euren arraza, sexua, hizkuntza, erlijioa, egoera ekonomiko, kultural edo soziala edo ezintasun fisikoak edozein direlarik.
- Zientzien, arteen eta giza zientzien alorretan ikertuz ezagutzaren aurrerabidean lagundu behar du. Berrikuntza, interdiziplinitatea eta transdiziplinitatea sustatu eta indartu behar ditu programetan eta hori gizarte eta kultur mailako beharrezkoen arabera. Horretarako behar-beharrezkoa da graduondoko ikasketak bultzatzea.
- Goi-mailako heziketaren beste ezaugarri bat egokitasuna izango da; hau da, gizarteak heziketatik itxaroten duenaren eta egiten duenaren arteko egokitasuna. Heziketa orokor zabala behar da, baina baita heziketa espezializatua eta aldi berean interdiziplinarra ere; eta bai gaitasunetan zentratuta, pertsonak egoera ezberdinetan bizi ahal izateko eta jarduera aldatu ahal izateko.
- Goi-mailako heziketak etengabe egon behar du harremanetan lan-munduarekin. Aldaketak eta ezagutzaren eta honen aplikazioetan oinarritutako ekoizpen-eredu berrien sorrera ezaugarri dituen testuinguru ekonomikoan, goi-mailako heziketak enpresa-munduarekiko eta gizartearen beste sektore batzuekiko lokarri estuagoak izan behar ditu. Goi-mailako ikasketen erakundeak ezin dira aldaketa eta aurrerapen zientifikoaren, teknologikoaren eta ekonomikoaren bazterrean geratu. Zentzu horretan, enplegua sortzen lagundu dezakete, goi-mailako heziketaren helburu bakarra izan gabe.
- Goi-mailako hezkuntza-sistematan aniztasun handiagoa behar dela ere sumatzen da; hau da, bigarren irakaskuntzaren osteko erakunde-mota berriak, publikoak, pribatuak eta irabazi-asmorik gabek. Heziketa eta prestakuntza-aukera zabala eskaini behar zaio gizarteari.
- Goi-mailako Heziketari buruzko Mundu-mailako Biltzarrak pentsamendu kritikoa eta sormena sustatzen dituzten heziketa-metodo berriak erabili beharra ere azpimarratzen du. Irakaste eta ikaste-prozesuak ikasleengan zentratuta egon behar du, horrela, gizartearen problemak aztertzeko, konponbideak topatzeko eta gizarte-mailako erantzukizunak euren gain hartzeko gai izango diren eta zentzu kritikoa izango duten ondo informatutako herritar bihurtu daitezkeen.
- Etorrizuneko herritarren ezaugarri horiek segur aski goi-mailako irakaskuntzako erakunderik gehienetako prozesu didaktikoetan aldaketa handiak eragingo dituzte. Ikasketak planak birformulatu eta kultura anitzeko testuinguruetan talde-lana ahalbidetu dezaten planteamendu pedagogikoak sartu eta teknologia aitzindariaren erabilera sustatu behar da.
- Heziketa-metodoen aldaketa hori ezin izango da burutu goi-mailako heziketako irakasleak trebatu eta prestatu gabe. Pertsonala prestatzeko politika indartsua behar da, goi-mailako prestakuntza ikusteko modu berri horri aurre egiteko gai izan dadin. Irakaskuntzaren eta ikerketaren onenak lortzeko eta bermatzeko berrikuntza pedagogikoaren, gaitasun pedagogikoaren hobekuntzaren eta jarduketaren zientifikoaren gaurkotze eta eguneratzearen beharra sustatu behar da.

- Goi-mailako irakaskuntzaren kalitatea, era berean, ebaluatu beharra dago. Kalitate hori funtzioak, jarduerak, zerbitzuak, pertsonala, ikasleak, eraikina, instalazioak eta ekipamenduak hartzen dituen dimentsio anitzeko kontzeptutzat jo eta horrela ulertu behar da. Barne-ebaluazioaren prozesu bati ekin beharko litzaioke, baina, horrez gain, beharrezkoa da kanpo-azterketa bat goi-mailako irakaskuntzako erakundearen kalitateari benetan lagunduko bazaio. Kalitatearen barruan nazioarteko dimentsioak ere egon behar du, irakasleen eta ikasleen trukaketak direla bide. Halaber, goi-mailako irakaskuntzako erakundearen eta lan-munduaren arteko mugikortasuna ere sustatu behar da.
- Teknologia-arena da goi-mailako heziketak aurre egin beharko dion beste erronka bat. Informazio eta komunikazio-teknologia berriek ezaguerak sortzeko, hartzeko eta besterentzeko modua aldatzen jarraituko dute. Dena dela, pentsa daitekeenaren kontra, irakasleek ez diote utziko nahitaezko izateari, baina rol berri bat hartu beharko dute: irtendakoei informazioa ezaguera eta ulerkuntza bihurtzen laguntzea. Goi-mailako heziketak informazio eta komunikazio-teknologiaren abantailak eta ahalmena aprobetxatu beharko ditu, inguru pedagogiko berriak sortuz, urruneko heziketako zerbitzuetatik hasi eta goi-mailako hezkuntza-sistemetaraino helduz.
- Erakundearen kudeaketak gardena eta eraginkorra izan behar du eta erakundearen eginkizuna betearaztea ahalbidetuko du, kalitateko irakaskuntza, prestakuntza eta ikerketa bermatuz eta komunitateari zerbitzuak emanaz. Horretarako, erakundearen parte hartzen duten alde guztien arteko elkarrikerketa nahitaezkoa izango da.
- Goi-mailako heziketaren finantziarioari dagokionez, horretan esku hartzen duten gizarte-eragile guztien parte-hartzea behar-beharrezkoa da, goi-mailako heziketak garapen ekonomiko, sozial eta kultural orekatsua sustatzen laguntzen du eta.
- Elkartasunaren printzipioa ere Goi-mailako Heziketaren eginkizunetakoa da. Herrialdeek eta kontinenteek komunean ipini behar dituzte ezaguera teorikoak eta praktikoak eta, horren ondorioz, ikasketaren plan guztiek jaso beharko lukete nazioarteko dimentsio hau. Gaur inoiz baino gehiago azpimarratu behar da beste kultura eta balore batzuekin bizi behar dugula eta elkarlan intelektual eta zientifikoa bultzatu behar dugu.
- Azkenik, Goi-mailako Heziketari buruzko Mundu-mailako Biltzarrean parte hartu zutenek Goi-mailako Heziketari buruzko Adierazpen Mundialaren jarraipena zaintzeko hartu zuten konpromisoa aipatu behar dugu.

3.3 EUROPAKO ESPAZIO ERKIDEA

- 1999ko ekainean Europako hezkuntza-ministroek, Bolonian bilduta “Boloniako Adierazpena” prestatu zuten, herri askok sinatu eta beste batzuek ere euren egin dutena.
- Adierazpen horrek Europan Goi-mailako Heziketa-marko bat sortzea du helburu, sistemak bateratu daitezkeen lortzeko; eta horretarako lau ekintzabide nagusi iradoki zituen:
 - Metatu daitezkeen kredituen sistema bat poliki-poliki ezartzea.
 - Erreferentzia-marko erkide, baina kualifikazioetarako malgu, bat ezartzea.
 - Akreditazio, ebaluazio eta kalitatearen bermeari dagokionez, europar dimentsioa.

– Kreditu-sistemen bateragarritasunaren, ikasketa-egitura ulerterrazen, lana eta ikasketak aldi berean egiteko aukeraren eta abarren bidez ikasteko aukera berriak eduki ahal izatea.

- Adierazpen hau indartu zuten, 2001ean, Salamancako eta Pragako biltzarrek eta horrela, pixkanaka-pixkanaka goi-mailako heziketa-marko europarra eratuz doa.
- Horiek guztiak horrela, europar “arau-markoa” etorkizunerako beharrezkoak diren aldaketetarako abiatzea lortu nahi da.

3.4 ESPERIENTZIA AURRERATUAK

- Epe berriko heziketaren ezaugarriak eta printzipioen adierazpena, orokorrean, adierazpen teorikoak dira, hezkuntzako egungo antolaketa-sistemen aldaketan eragin txikia dutenak.
- Hori egia bada ere, metodo berriak aplikatuta esperientzia garrantzitsu batzuk burutu direla aipatu behar da; orain bada, oraindik ezin da hitz egin tradiziozko antolaketa errotik alda dezaten heziketa-prozesu alternatiboez.
- Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe asko dira heziketa-prozesu berritzaileak abian jarri eta jartzen ari direnak eta nazioarteko unibertsitate-eremuan ere jokatzeko arau berriak ezarriz joan diren esperientzia aurreratuak ere egon badaude.
- Gure gizartearen beharrezko kontrastearen, nazioarteko esperientzien berri izatearen, aipatutako irizpideak aldarrikatzearen eta barne-hausnarketaren emaitza da Mondragon Unibertsitatearen plan estrategiko barruan jasotako *Mendeberr* izeneko proiektua, **Heziketa-ereduaren Berringeriaritza** gisa, ondoren aipatuko ditugun ezaugarriak dituen.

3.5 MENDEBERRI PROIEKTUA (HEZIKETA EREDUAREN BERRINGERIARITZA)

- Berebiziko azkartasunez gertatzen ari diren aldaketa handien ondorioz sortutako beharrezko berriei erantzun nahi die eta, Hezkuntza Proiektuaren garapenerako oinarria dela, Unibertsitateko komunitateak formulatutako MISIOA betetzea ere du helburu proiektuak.

Mondragon Unibertsitatearen misiorik nagusia bere ikasleentzako kalitateko prestakuntza integrala lortzea da, prestakuntza-prozesuan euren parte-hartze aktiboaren bidez; prestakuntza integral horrek enpresa-munduko eta orokorrean gizarte-inguruko egungo aldaketek planteatzen dizkieten erronkei nahiko bermeaz aurre egiten ahalbidetuko dielakoan.

Prestakuntza integral horrek, beharrezko ezaguera zientifikoez eta teknikoez eta lanaren etikan oinarritutako gaitasunez eta ahalmenez gain, bere egingo ditu elkartasuna eta bere destinoaren jarrera autogestiboa (proaktiboa). Gainera, garapen pertsonalaren eta komunitatearen garapenaren arteko oreka bilatuko du eta, orokorrean, bere egingo ditu pentsaera kooperatibotik eratorritako baloreak. (MISIOA)

- Berringeniaritza-proiektuak sistema berri bat garatu nahi du, esperientzia-eredu gisa hiru titulaziotan (Fakultateetako titulazio banatan) aplikatuko dena, ondoren proiektua eraginkor bihurtuta unibertsitate guztira zabaltzeko asmoz. (Prozesua zortzi urtetan burutzea aurreikusita dago). Aurkezpen labur bat egiteko hiru ataletan banatuko dugu azalpena: a) Ezaugarriak, b) Proiektuaren arkitektura, c) Irakaste eta ikaste-prozesua.

a) Ezaugarriak

- Heziketa-proiektuaren eta curricula berriaren ezaugarriak izango dira nolabait. Honako hauek nabarmen ditzakegu:
 - * **Pertsonaren garapen integrala.**- Pentsamendua eta ekintza integratzeko gai izango diren pertsonak, komunitatearen balore estrategikoetan integratuta.
 - * **Komunitatearekiko konpromisoa.**- Onura kolektiborantz jarduera orientatzea eta horren beharra sustatzea, komunitatearen onuratan izanik norbanakoaren onerako ere izango dela.
 - * **Pertsona pro-aktiboak.**- Autogestioan eta norberaren antolaketan oinarrituta, parte-hartzea sustatuz ikaslea bere garapen pertsonal, sozial eta profesionalean protagonista izan dadin.
 - * **Heziketa eleanitza.**- Kultur identitatearen eta komunikazio unibertsalaren beharrezko erantzuteko.
 - * **Ikasteko heziketa.**- Oinarrizko heziketari dagokionez, gaurkotzeko eta sakontzeko aukerak bizitza guztian aprobetxatzea ahalbidetuko duena.
 - * **Ezagueren arteko erlazioa eta bateratzea.**- Ekintza globaleko gaitasunen garapena ahalbidetu dezala. Jakintzetan zentratutako irakaskuntza-eredua gaitasun behar du, jakintzen artean ezagueren transferentzia dinamikoa eta aurrerapen zientifikoak eta teknologikoak bereganatzeko eta besterentzeko estrategien garapena ahalbidetuz.
 - * **Ikasketaren eta lanbide-garapenaren arteko erlazioa.**- Benetako problemei buruz eta lanbidearen errealitatean testuinguruan sartutako edukiak hartzea edo bereganatzea ahalbidetuko duena.
 - * **Malgutasuna.**- Ikasleen, inguruaren eta aldaketa estrukturalen beharrezko ezberdinetara, etengabeko bilakabidean daudela, egokitzea.
 - * **Informazio eta Komunikazio-teknologia berrien (NTIC's) erabilera.**- Informazio eta Komunikazio-teknologia berrien (NTIC's) abantailak aprobetxatzea irisgarritasunari, denborazko malgutasunari, informazioari eta harremanari dagokienez.
 - * **Ekintza bidezko ikerketaren sustapena.**- Aplikazioa sustatzen duen giro berritzaile batean, ondo eta gaizki egindakoetatik ikasiz.
 - * **Kalitatearen kultura.**- Prozesu guztiko kudeaketaren eta zerbitzuen hobekuntzagatikoz kezka eta hori guztion partaidetzaz.
 - * **Irisgarritasuna.**- Gaitasun eta ezaugarri ezberdinetako pertsonen erantzungo dien curricula, gizarte guztia zabalik eta bizitza guztiko prestakuntza-beharrezko erantzungo diena eta horietan poliki-poliki heziketa formalaren eta etengabeko heziketaren arteko mugak desagertuz joango direla.

b) Proiektuaren arkitektura

- Heziketa-proiektuaren oinarria osatzen duten ardatzak honako hauek dira: Gaitasunak, eleaniztasuna, baloreak. Ardatz horiek ez dira bereizitako kajoiak, ikaslearengan, pertsona, gizarteko partaidea eta profesionala den aldetik, eragiten duten heziketa integralaren osagarriak baizik. Hiru zutabe horien ondoan Informazio eta Komunikazio-teknologiaren erabilera berritzailea ere nabarmendu beharra dago.

- * **Gaitasunetan oinarritutako Curriculum.**- Curriculum hori garatzeko “titulazio bakoitzaren profil profesionala” zehaztu beharra dago, etengabe bilakatzen ari den inguru batean lan-munduan eginkizunak burutzeko eskatutako gaitasunak jasota. Profil profesional horretan izaera ezberdinetako gaitasunak daude: Izaera tekniko eta metodologikoa duten **Gaitasun zehatzak** eta lanpostu bateko gaitasun zehatzak izan gabe parte hartze mailakoak edo pertsonalak diren **Gaitasun transbertsalak**.

Gaitasunak zehaztea eta curriculum sartzeari zeregin garrantzitsua da heziketa-prozesu berrian eta orain arte garatutako gaitasunak izugarri zabaltzen edo handitzen ditu horrek.

- * **Eleaniztasuna.**- Globalizazioak mugikortasuna dakar berekin eta ildo horretatik hizkuntza-gaitasunak badu garrantzia. Unibertsitateak gutxiengoaren hizkuntza den geure Euskararekiko bere egindako konpromisotik abiatuta, hizkuntza ofizialen inguru batean eta, komunikazio globalaren beharra dela, eta ingelesa harremanetarako oinarritzko hizkuntza bihurturik, eleanitzezko heziketa unibertsitate-mailako prestakuntzaren oinarritzko exijentzia bihurtu da dagoeneko. XXI. mende honen hasiera honetan prestatzen ari den pertsonarentzat beharrezko gaitasuna da.

- * **Baloreen garapena.**- Aldaketetako une hauetan, baloreak ardatz edo gida ditugu, berrietan oinarrituta, aldaketek egungo desorekak gainditzeko eta gizarte zuzenago eta solidarioago bat lortzeko balio izan dezaten. Unibertsitateak ezin du eta ez du behar amore eman baloreak garatzeari dagokionez, izaera etiko-pertsonaleko osagai garrantzitsu bat izateak bere prestakuntzaren ezaugarria izan behar duela.

Unibertsitateko komunitateak berak formulatutako balore eta printzipio jakin batzuetatik abiatuta, eta nazioarte-mailan heziketari planteatzen zaizkion erronka handiekin hori guztia lotuta, joera kooperatiboa duen eta ondoren azaltzen diren hiru mailetan kokatzen dira alderdi sozio-etikoa garatu nahi duen hezkuntza-proiektu baten oinarriak. Hona hemen hiru mailak:

Edukiak.- Seriotasunez, zehaztasunez, beste unibertsitate batzuetako erreferentziez eta konplexurik gabe, karreretako edukien eskaintzan eduki sozio-etikoak eta kooperatiboak jasotzea da kontua, horretarako pertsonen, materialen eta hausnarketaren gune indartsu bat sortuz. Ikasleei, euren espezialitate teknikoa edozein delarik ere, gizarte-arloko eduki osagarriak eta giza zientzien arloko ezaguerak eskaintzean datza, euren lanaren testuingurua kokatzeko eta euren-eurenak diren zentzuak egiteko tresnak emanez.

Metodologia.- Unibertsitatearen prestakuntza-funtzio guztian pedagogia kooperatiboa garatu nahi da. Ikasleak euren prestakuntzako protagonistak izango diren eta parte hartzean oinarrituta dauden metodo didaktikoak inplementatzean eta ikertzean datza.

Unibertsitateko bizitza.- Unibertsitateko komunitate guztiak erabakitze maila guztietan parte har dezan sustatzea. Unibertsitatearen inguruko eta munduko gizarte-mugimenduekiko, eragileekiko eta erakundeekiko harremanak orientatzea, unibertsitate-hedapenaren arloak eta jarduerak lehenetsiz. Unibertsitatearen kultur eta jolas jardueraz gogoeta egitea. Munduari zabaltzeko aukerak planteatzea... unibertsitatearen Plan Estrategikoan azaldutako printzipioekin zuzen-zuzenean lotzen diren ikasgelaz kanpoko gai asko daude.

* **Informazio eta Komunikazio-teknologiaren erabilera.**- Teknologia berriek hezkuntza-ereduan jokatu beharreko papera honelaxe laburbil daiteke:

Unibertsitateko komunitateko kideen arteko komunikazioa ahalbide dezakeen **bitartekoa**,

edukien eta ikasketa-prozesuaren **euskarria**

eta, azkenik, ikasketa-prozesuarentzako **laguntza eta baliabideak**

Teknologiak, espazio-denbora binomioa apurtzeko gai direnez gero, lanbide-karrera guztian profesionalek etengabeko prestakuntza jaso dezaten lehenetsitako euskarria eta bitartekoa izango dira. Beraz, logikoa dirudi pertsonak unibertsitatetik ikasteko era berri honetara egokitzen joateak.

c) **Ikaste eta irakaste-prozesua**

- Heziketa berriaren ezaugarriekin eta proiektuaren arkitekturarekin batera, ikaste eta irakaste-prozesua aldaketaren benetako motorea da, eta horren arabera aipatutako printzipioak garatzea ahalbidetuko da. “Heziketaren esku hartzeak” aldatu behar du.
- Titulazio bakoitzean abian jarri nahi dugun profil profesional hau ez da izango heziketaren esku hartzeaz hausnarketa sakona egin gabe. Abian jarri behar dira prozesu didaktiko ezberdinak eta horietako bakoitzak profil profesional bakoitzaren ezaugarriak diren baloreetan eta gaitasunetan zer-nolako eragina duten ikertu.
- Hona hemen abian jarriko diren prozesu horietako batzuk: problemak konpontzeko bideratutako prozesua, kasuen azterketa eta proiektuen bidezko ikasketa.
- Europako (Aalborg, Maastrich) eta Amerikako (ITESM) hainbat unibertsitatetan dagoeneko ezarri diren prozesu didaktiko berritzaile hauek pizgarri eta bultzagarriak dira, zeregina betetzeko edo ebazteko gaitasun anitzen erabilera behar baitute.
- Gainera, jakintzen arteko eta zeharkako orientabidea ahalbidetzen dute (orientabide interdiziplinarra eta transdiziplinarra), ikasleek zenbait jakintza-arlotara eta hainbat prozeduratara jo behar baitute zereginari arrakastaz ekiteko.

- Aldi berean, eta Kjersdamek (1998) ondo baino hobeto adierazten duen moduan, mota honetako irakaskuntzak teoriaren eta praktikaren arteko bereizketa gandi dezake, problema praktikoek ikasleak teoria garrantzitsu bat edo beste aukeratzera eramaten dute eta. Hezkuntza-sistema egoki eta profesional bat ikerkuntzaren, irakaskuntzaren eta praktikaren arteko osoko elkarrekintzaren baldintzapean dago.
- Prozesu didaktiko berritzaile hauek berdinen arteko lankidetzara eta irakasleen eta ikasleen arteko elkarlana sustatzen dituzte. Taldeko kideek elkarri ematen diote laguntza, batak besteari laguntzen dio teoria zailak ulertzen eta proiektu bat burutzeko edo problema konplexu bat konpontzeko ahalegina gaintzen.
- Kjersdamen (1998) iritziz, problemak konpontzerantz bideratutako proiektuen bidez egiten den lanak ikasleei etorkizuneko problema ezezagunei aurre egiteko metodologia egoki bat ere irakasten die. Ikasten ikastea.
- Azken buruan, tradizionalagoak diren metodoen aldean, prozesu didaktiko berritzaile hauek heziketa-inguruan interesgunea irakaslearengandik ikaslearengana eta irakaskuntzatik ikaskuntzara eramaten dute. Hortaz, ikasleak euren ikasketaren protagonista bihurtzen dira, elementu pasibo “ezagueren hartzaile” izateari utziz.
- Autoikasketaren garapenean ere interes berezia ipiniko dugu. Etengabeko aldaketetan eta berrikuntzetan murgildutako lan-merkatuaren exigentziek ikasketa autonomia beharrezko egiten dute, profesionalek exigentzia horiei erantzun ahal diezaieten. Horretarako autonomia sustatu beharko da heziketa-munduan. Ikasleek edozein jardura didaktikoren helburuak zeintzuk diren jakin behar dute; hau da, zein harreman duen bere profil profesionalarekin, hots, egokia den ala ez, eta zeintzuk izango diren ebaluatzeko irizpideak. Horrelaxe bakarrik bideratu ahalko dute ikasketa modu arrakastatsuan eta ezaguerak egin era arduratsu eta informatuan.
- Prozesu didaktikoetako aldaketa hauek, horren guztiaren ondorioz, irakasleen rolerako aldaketak ekarriko dituzte. Irakasleen rolak ezin jarrai dezake izaten ezaguerak besterentzea, lehendabizi, ezaguerak ezin direlako besterendu, egin egiten dira baizik, eta bigarrenik informazioa iraungi edo zaharkitu egiten delako.
- Dena dela, irakasleek ikasketaren erraztaileak izan behar dute, ikasleei informazioa bilatzeko, aukeratzeko, ulertzeko, modu kritikoan aztertzeko eta aurkezteko estrategia metakognitiboak garatzen lagunduz. Bestela esanda, ikasleei informazioa kudeatzen ikas dezaten lagunduko diete. Hauek informazio eta ezagutzaren gizarteak behar dituen estrategia metakognitibo batzuk besterik ez dira.
- Ondorio horietarako, irakasleek ikasteko egoerak sortu beharko dituzte –arestian, prozesu didaktiko berritzaileez aritzean, aipatutakoen antzerakoak- sormena, irudimena, gaitasunen garapena, eta are garrantzitsuagoa dena, “gehiago ikasteko gogo” pizteko.

- Irakasleek, hala ere, ezin izango dituzte prozesu didaktiko berritzaileak garatu prestakuntza egokia ez badute eta beharrezko baliabide didaktikoak eduki gabe. Eta gogora dezagun irakaslea dela ikaste eta irakaste-prozesuaren benetako arranke-motorea. Beraz, irakasleak gaitzeko eta euren rol berria orientatzeko trebakuntza-plan eraginkorra eta, aldi berean, “tutoretza-zerbitzuak” diseinatzea behar-beharrezkoa izango da.

d) Ondorio orokorrak

- *Mendeberr*i proiektua martxan jartzea aldaketa sakonean murgildutako gizarte batean heziketa-ekintzari zentzu bat aurkitzeko ahalegina da. Erronka handia da eta lor daitekeena gainera, baina fedea, ilusioa eta borondate handia behar ditu ohikoak ez diren bideetatik edo bide ezezagunetatik ibiltzeko.
- Badira bi esakune, honetarako aproposak:
 - “Ez badakizu nora zoazen, bide bat bera ere ez da egokia izango horra joateko”.*
 - “Inoiz ez dago aldeko haizerik norabiderik ez duen itsasontzi batentzat”.*
- Proiektuak norabidea aukeratu eta helmuga bat ezarri nahi du aldatzen ari den mundu zail batean.
- Printzipioak eta helburuak bikainak eta zehatzak izanagatik ere, ikasleek euren burua partaide ikusten duten, helburuekin bat datozen eta unibertsitateko estamentuekin elkarlanean ari diren hezkuntza-proiektu batekiko “**ilusioz beteriko identifikazioa**” bilatu behar da.
- Giza porroten % 75 ez dira gertatzen gaitasunik ezagatik, pertsonen **jarreragatik** eta motibazioagatik baizik. Porrotaren atzean ez dago alderdi intelektuala, emozionala baino.
- *Mendeberr*i proiektu berriak bere helburuak lortuko ditu, pertsonak hezkuntza-proiektu sozio-ekonomikoan motibatzea lortzen badu, bere komunitatearen estrategiekiko loturatik eta ezagueratik, gizartearen helburuen lorpenean bere garapen pertsonala integratuz. Heziketak pertsona prestatuak, informatuak eta erabat motibatuak lortu behar ditu.

4. JARRERAK ALDAKETAREN AURREAN _____

- Printzipioen eta hezkuntza-estamentuarentzat eratorritako beharriaren definizioa, aldatzeko une hauetan, oso garrantzitsuak dira, baina, definizio horiekin ez dugu ezer handirik lortuko, erakundea jokaera aldatzera eramaten duten mekanismoak eta aldatzeko aurreko jarrerak aztertzen ez baditugu.
- Printzipio handiak aldarrikatu eta jarrera intelektual aurreratuak edukitzearen eta, bien bitartean, lehengo denboretako interes gremialak eta erakundearen egitura zaharkituak defendatzearen dikotomia maiz gertatzen da.
- Kontua askotan jarrera aurreratuak agertu eta, barne-birmoldaketak eta aldaketa sakonak egin beharra aztertu gabe, sistemaren ezegokitasuna agintari publikoei eta kanpoko eragileei leporatzea da. **BIRMOLDAKETA** hitza bera ezin esan daiteke heziketa-inguruetan, gizartearen beste alor askotan, ordea, ohiko hitza eta jarduketa da.
- Aldaketa-une hauetan lehen jarrera beharrezko zabalatasun mentala da, bakoitzak bere onenak emateko egokitze-prozesuan, eskubideak defendatuz baina hauek beharrezko erabakiak hartzea gelditu gabe.

4.1 HEZKUNTZA ESTAMENTUEN JARRERAK

- Hezkuntza-sistemaren aldatzeko motibaziorik nagusia heziketan eragiten duten estamentuak egungo egoeran aldatzeko sartu beharrezko konbentzitzea da eta, batez ere, irakasleak konbentzitzea.
- Gizartean aldatzeko handia gertatzen ari den une batean gaudenaz eta aldatu gabe segitzea oker handia denaz jabetzea behar-beharrezkoa da.
- Enpresa multinazional handi baten lema ezin adierazgarriagoa da:
 - “Onena.- Erabakiak hartzea eta asmatzea”
 - “Ona.- Erabakiak hartzea eta okertzea”
 - “Txarrena.-Erabakiak ez hartzea”
- Okerretatik ikasi eta zuzendu egiten da, erabakiak ez hartzeak aldatu eta zuzendu ezin daitekeen okerra dakar berekin eta, gainera, bide onetik joaten dela uste izaten da, beste gabe ezaguna delako.
- Ondo baino hobeto ezagututako gizarte-egoera estatikoetarako edo aldatzeko-prozesu geldoetan dauden gizarte-egoeretarako bide ezagunak, ordea, ez dira egokiak helmuga aldatzen ari denean.
- Egungo egoeraren jakinaren gainean egoteak edo kontzientzia hartuta egoteak hiru jarrera ezberdinetara eramaten gaitzake: Erreaktiboetara, pasiboetara edo proaktiboetara.

- * **Jarrera erreaktiboak.**- Modu esplizituan edo inplizituan aldaketei aurre egiten dieten eta beharrezko aldaketak eragozten saiatzen diren horiek dira. Oso zaila da modu esplizituan jarrera hau agertzen duten pertsonak aurkitzea eta askotan jarrera erreaktibo-atzerakoiak aurki ditzakegu adierazpen aurrerakoi progresistetan ezkutaturik. Hezkuntza-sistemaren antolaketa-egiturak erabat erroturik eta guztiz sustraiturik daude. Oso zaila da aurrera egitea egitura horiei utsita, erakunde berriek malgutasuna eta aldaketa behar dituzte eta.

Funtzionaritzako sistemak, katedra-kontzeptuak, pertsonalaren mugikortasunak, ordainketa-sistemak, kontratazio-sistemak eta abarrek iraganeko irizpideei erantzuten diete.

Egitura horiek aldatzeak benetako jarrera erreaktibo-atzerakoiak sortuko luke, askotan itxuraz aurrerakoiak diren estamentuak buru direla.

Egitura horiek malgutu behar dira eta jarrera zabala eduki, pertsonaren funtsezko eskubideei eusteko edo zaintzeko prest, baina antolaketa-modu zaharrei heldu gabe.

Egungo aldaketa-egoeran, jarrera horri eustea bilakabidearen “korrontearen kontra igeri egitea” da.

- * **Jarrera pasiboa.**- Modarekin batera joatea da eta aldaketak sartzea, behin sektorerik aurreratuenetan sartuta, norberak okerrak egiteko arriskurik gabe.

Normalean jarrera akritikoak izaten dira, aldaketen ondorioen jakinaren gainean ez daudenak eta sor daitezkeen baloreak eta desorekak onartu egiten dira horietan, horien aurrean jarrera aktiboa eduki gabe.

- * **Jarrera proaktiboa.**- Egungo desorekak eta problemak gainditzeko sistema berriak hartzeak eskaintzen dituen aukerak aztertzean datza. Asmoa ez da aldaketara moldatzea edo egokitzea, nahi diren helburuetarantz aldaketa “bideratzea eta horren protagonista izatea” baizik.

Ezarritako oinarrietan fedea izatea, lorpenak erdiets daitezkeelakoan egotea eta ahaleginean etengabe saiatzea dira zutabeak erakundearen egiturak eta ereduak sekundarioak direla pentsaturik beharizan berrietara egokituak izateko.

- Aldatzen ari diren egoeren aurrean gaudela jakitun egonik, jarrera proaktiboak hartu behar ditugu; hau da, jarrera berritzaileak, probakoak edo saiaketakoak hartzea, mentalitate zabal eta malgu batekin, egokipenak burutu ahal izateko.
- Egungo antolaketa-sistemak jarrera malguak hartu behar ditu, heterodoxiak onartuz eta eredu berrietan saiatuz, eta behin eredu horiek sendotuta, arau bihurtu ahal izango dira.
- Burua “KONSTITUZIO BERRIA EGITEKO GARAIAN” jarri behar dugu, arau berriak eta jokatzeko moduak sortzen joateko.

4.2 BEREZ ERREGULATZEKO MEKANISMOAK

- Gizarte-egitura guztiek izaten dituzte autorregulatzeko mekanismo batzuk, gizartearen beharrezanetara egokitzera edo entitate moduan desagertzera behartzen dituztenak.
- Merkatu librean finantzatzen diren entitate ekonomikoentzat eta enpresentzat ustiapen-kontua eta lehiakortasunari dagozkion sektoreko faktoreak izaten dira erregulatzeko elementuak. Enpresa bat lehian atzean gelditzen hasten bada, aldatzeko erabakiak hartzen ditu, eta asmatzen ez badu, birmoldatu beharko du.
- Erakunde politikoek ere saltzen dute “euren mezua” gizartearen aurrean eta hauteskundeetan aurrera egiteko proposamena onetsita edo gaitzetsita ikusten dute. Hauteskundeetan porrot eginez gero, pertsonak eta mezuak aldatu egiten dira. Hauteskundeak dira erregulatzeko duten mekanismoa.
- Hezkuntza-sistemak, ordea, ez du berez erregulatzeko barne-mekanismorik, entitate pribatuak izan ezik. Azken hauek, ikasle-kopuruak dezente behera egiten badu, erabakiak hartu beharko dituzte, baina, bestela, heziketa-prozesua hamarkada askotan egon daiteke ikasteko eta irakasteko duen sisteman aldaketa handirik egin gabe eta bere jarraipenean horregatik eragin nabarmenik izan gabe.
- Sistema-aldaketak erakundeetatik etor daitezten exijentzia-mekanismoei baino gehiago irakasleen profesionaltasunari eta kontzientziari zor zaizkie.
- Bat-bateko egitura-aldaketek, esate baterako, murrizketa demografiko batek 20 urtetan edo epe laburrago batean ikasleen % 65eko murrizketa badakar, ez dakarte sisteman funtsezko aldaketak sartzerik, irakasle-kopuruak eta aurrekontuek hazten segitzen dute eta.

Prozesu hori edozein entitate ekonomikotan onartezina litzateke.

- Hezkuntza-estamentua bilakatzea nahi izanez gero, lehiatzeko erregulazio-mekanismoz hornitu behar da sistema, publiko/pribatu eztabaida zaharkitua gaindituz eta berez erregulatzeko mekanismoak izango dituen sistema dinamiko baten inguruan zentratuz eztabaida berria.
- Erregulazio-mekanismo horiek poliki-poliki sartzeko zenbait bide proposatu daitezke, baita finantzaketa publikoari eutsiz ere; horrela, irakaskuntzarako bereizketarik gabeko sarbidea bermatu daiteke eta ikastetxe publikoen egiturari eutsi, baina azken honek exijentziarik gabeko burokratizazioa berekin ekarri gabe.
- Hori faktore garrantzitsua izango da XXI. mendeko exijentzietara egokituta dagoen hezkuntza-sistema eratzeke.

4.3 ERAKUNDE PUBLIKOEN ZEREGINA

- Irakaskuntzako jarduera, zuzenean zein zeharka, neurri handi batean administrazio publikoen lankidetzan oinarritzen da.
- Sistemaren parte handi bat zuzenean dago Administrazioaren menpean (ikastetxe publikoak), eta ikastetxe pribatuak neurri handi batean Administrazioaren baimenen, ikasketen arauketaren eta diru-laguntzen menpean daude.

- Dena dela, administrazioek berez ezer gutxi egin dezaketela azpimarratu behar da, hau da, irakaskuntzako estamentua alde ez badago. Horrela bada, hezkuntza-sistema gaurkotzeko lana denoi dagokigu.
- Administrazioei exiji dakiekeen lehena gizarte-aldaketaren egoeraren kontzientzia argia eduki dezatela da, baita oraingo desorekak gaindi ditzan gizarte baten eredia aldarrika dezatela eta esperimintatzeko eta aldaketak egiteko giroa susta dezatela ere. Horretarako malgutasun nahikoaz hornitu beharko dute sistema.
- Etorkizun-bisioa, borondateak batu ditzan lidergoa, esperientzia aurreratuen bultzada ekonomikoa eta morala eta emaitzen zabalkundea eta difusioa Administrazio Publikoei dagozkie. Horixe da zereginik garrantzitsuena.
- Era berean, Administrazio Publikoa izaera organikoa duten legezko arauen menpean dago erabat eta hauek erakundeen antolaketa zurrinak eta guztiz sustraituak ezartzen dituzte. Bestetik, hezkuntzako estamentuen ordezkariak arau horien erabateko defentsa egiten du eta honek guztiak edozein aldaketa izugarri zail bihurtzen du.
- Administrazioaren ikusmoldearekin identifikatutako eta ezagututako esperientzia aurreratuak ugaritzeak, horietan antolaketari buruzko arau orokorrak salbuetsita egonez gero, aldaketan aurrera egiteko nahiko malgutasuna ekar lezake, baita antolatzeke era berriak esperimintatzea eta honen ondoren orokortzea ere.
- Administrazioaren ikusmoldea eta lidergoa eta esperimintalak diren erakundeei egitura malguak emanez esperientziak sustatzeko borondatea dira bilakabidea geldiaraziko luketen gatazka handiak sortu gabe aurrera egiteko bidea.
- Politika publikoan eta beronen jarreran dago bilakatze-prozesuaren gakoetako bat.
- Administrazio Publikoak, esperimintatzeko zereginean duen esku hartzeaz, publikoaren eta pribatuaren arteko dikotomia gainditu beharko luke, ikastetxeen eta proiektuen arteko lehia-egoera ezarriz, proiekturik interesgarrienak aurrera ateratzen laguntzeko programa-kontratuak sinatuz. Ikastetxeetan berez erregulatzeko mekanismoak ezartzeko urrats bat da.
- Azken buruan, Administrazioak ekimenez esku hartzeak entitate isolatuek garatu dituzten merituko esperientziak eta helburuak Herri guztiarenak izatea edo bihurtzea ekarriko luke. Horrela erakunde publikoen eta pribatuen ahaleginak batuko lirateke helburu baten atzean, gure ahaleginak eta borondaterik onena eskaintzea eta lan egitea merezi duen helburu ezagun, konpartitu, handinahi eta lorgarri baten atzean.

5. UNIBERTSITATERAKO PROPOSAMENA

- Egiten den planteamendua utopiko eta zaila dela pentsa daiteke, batez ere, kontuan hartzen baditugu unibertsitateen egungo dispertsioa eta elkarren arteko komunikazio eskasa. Dena dela, gertatzen ari denaren tamainako aldaketa bati ekiteko erantzukizunak eta unibertsitateko estamentuak duen Gizarte Eragilearen rolak berritzera behartzen gaitu.
- Unibertsitatea, Lanbide Heziketarekin batera, hezkuntza-sistemak gizartera irteteko duen bidea da. Horregatik, hortxe gauzatu behar dira aurreko orrialdeetan egindako proposamenak, gizarteari prestakuntza egokia duten pertsonak eskaintzeko.
- **Bizitza guztian egin beharreko prestakuntzaren** beharra hortxe dago eta horren aurrean unibertsitatea aldatzen diren gizartearen beharrezko solaskide iraunkor bihurtzen delarik, beharizan horiei erantzun gaurkotu eta dinamikoak eskaini behar dizkie.
- Ezagutzaren eta ikerketaren goia izanik, aldaketa-une hauetan erantzukizun handia du gizartearekiko eta, gainera, erakartzeko duen gaitasunagatik hezkuntza-sistema guztiak aurrera zein atzera egin dezan eragina izan ahal du.
- Komentario horiei gaineratzen badiegu Euskal Herriko unibertsitate-sisteman hiru unibertsitate eta isolatutako zenbait unibertsitate-ikastetxe daudela, oinarrizko helburuekiko bat etortzea eta kohesioa lortzeko dimentsio egokia duela baieztatu daiteke eta hori behar-beharrezkoa da benetako SISTEMA bat sortu ahal izateko.
- Sistema esaten dugunean haxe esan nahi dugu: bereizitako egitura autonomoak egon daudela, elkarren arteko erlazio-lotura handiak dituztenak eta, komunitatearen zerbitzuan, funtsezko helburu berberei erantzuten dietenak. Behin sistema sortuta, egituretako edozeinetan aldaketa garrantzitsu bat egonez gero, multzo guztian du eragina.
- Sistema bat sortu ahal izateko, ez da nahikoa bereizitako unibertsitate-egituren egungo egoera. Harreman edo erlazio-loturak sortu behar dira eta, batez ere, helburu komunak. Atal honetan helburu horretarantzko proposamen bat egin nahi da.

5.1 UNIBERTSITATE EREDUA. EPE LUZEKO HELBURU KOMUNEN DEFINIZIOA

- Egungo unibertsitate-egituraren gabezien azterketa eta eredu berriaren ezaugarriak bilduta daude hainbat entitatek egindako lanetan, horietatik hauexek nabarmendu nahi ditugu: Unibertsitate 2000 Txostena (Bricall txostena) eta Europako Erkidegoaren Agiriak.
- Atal honetan aipatu dokumentuetako hiru aipamen hauek jaso ditugu:
 - Heziketari dagokionez:
“Enplegu-gaitasunaren garapena, beharrezko gaitasunen bidez, sormena, malgutasuna, egokipena, ikasteko gaitasuna eta problemak konpontzen ikastea bizitza guztian sustatzeko”.

- Ikerketari dagokionez:

“Ikerketa-institutuen sare integratuak eratzea, unibertsitateetakoak izan zein ez, baita aholku-zerbitzuenak edo unibertsitateetako kanpusetan instalatutako enpresenak ere, malgutasunez euren artean harremanetan daudela, sinergiak sor daitezen errazteko...”

- Kudeaketari dagokionez:

“Unibertsitatea, zerbitzuak ematen dituen enpresa eta, beste edozein enpresarekin alderatuta, kudeaketa homologagarria behar duena”.

- Heziketatik, ikerketatik eta kudeaketatik ikusita, unibertsitatearen egungo kontzeptzioa modu sakonean bilakatzeko eta eboluzionatzea beharrezkoa da, orain duen jarrera autonomo, kritikoa eta independentetik lan-munduan eta gizartean dauden problemekin artikulatuta egotera heltzeko eta “Gizarte Eragile” gisa duen zeregina betetzeko.
- Euskal Herritik aipatutako exijentziei erantzuneko dien Unibertsitate Eredua ezarri behar dugu, helburu handiak ipiniz, eta eduki, prozesu eta antolaketa-sistema berriak esperimendatuz eta ezarriz. Labur esanda, gizartea ilusionatzeko eredu bat ezarri behar da, unibertsitateak horretan gizarte-eragile den aldetik dagokion protagonismoa onartuz.
- Horrelako prozesu bat artikulatzeko euskal unibertsitateek, Eusko Jaurlaritzaren lidergoan, modu zabalean lagundu dezatela behar-beharrezkoa da; horretarako, lantalde bat eratu beharko dute, helburuak finkatuko dituzte eta funtsezko planteamenduetan lagundu beharko dute.
- Hiru unibertsitateak –publikoa, kongregazio erlijioso baten menpekoa eta gizarte-kudeaketako kooperatiba-, irabazi-asmorik gabekoak dira eta dauden komunitatearen garapenean laguntzeko zerbitzua emateko helburu argia dute. “Osagai” ezberdin eta osagarriak dira, bakoitzak bere historia eta izaera dituela, gizarte zuzen eta solidario bat lortzen lagundu dezan unibertsitate-eredu berria erdiesteko zabal-zabalik laguntzea erabakitzen dutenak.
- Planteamendu honen zailtasuna Estatuaren oinarriko legeek ezartzen dituzten zurruntasunetan dago; izan ere, Estatuak “lege organikoen” bidez Euskal Herriko autonomia politikoa eta unibertsitateen autonomia ere moztuz doa.
- Egoera honek, galga izan gabe, legeak aldatzeko edo sistema garatu ahal izateko hutsarteak aurkitzeko bultzagarria izan behar du.
- Unibertsitate bakoitzaren izaera ezberdinetik abiatuta honako hau egin behar da:
 - Helburu komunak ezarri, unibertsitate horietako bakoitzak lan egingo duen gizartearentzat beharrezkoak direnak.
 - Zenbait alderdi edo aspektu ezarri, horietan unibertsitateek konpartitzeko, elkarrekin lan egiteko eta informazioa eta proiektuak trukatzeko.
 - Printzipioak eta ideiak erakunde moderno aurreratutan gauzatu.
 - Azken finean, **UNIBERTSITATEEN EUSKAL SISTEMA** eratu, bere-bereak izan daitezen printzipioekin, elkarren arteko harremanekin, helburuekin eta jarraipen eta kontrol-sistemeekin.

5.2 UNIBERTSITATEEN EUSKAL KONTSEILUA. SISTEMAREN ORGANO ERKIDEA

- Euskal Herrian badago “Unibertsitateen Euskal Kontseilua” deritzon koordinazio-organoa, traiektoria laburra izan duena; izan ere, aholkuak emateko, informazioa trukatzeko eta administrazio-aspektu funtsezkoetan kontrastatzeko elementua izatera mugatu da. Hasierako organismoa izan liteke garatu nahi den zereginari ekiteko eta lanean hasteko.
- Organo aholku-emaile izatetik bere-bereak liratekeen zuzentzeko eginkizunak lituzkeen organoa izatera bilakatu liteke. Arzteko eginkizun horiek parte hartzen duten entitateetako bakoitzak eman diezazkion ahalmenetatik etor litezke.
- Autonomia osoa duten entitate kooperatiboek lidergoa duten korporazio kooperatiboak sortzen dituzten moduan, unibertsitateen eta Eusko Jaurlaritzaren nahiak edo borondateak eskumenak lituzkeen Unibertsitateen Euskal Kontseilua eratu lezake. Eskumen edo ahalmen horiek behin hala erabakita bete beharreko itunen bidez ezar daitezke.
- Prozesua progresiboa izan liteke; hots, lorpenetan aurrera egin ahala sendotuz eta denboran barrena indartuz joanez.
- Funtsezko zeregina gizartearentzako **mezuen eta konpromisoen igorlea** izatea litzateke, **unibertsitate-sisteman gizarteak sinets dezala** lortuz eta **aldaketarako gizarte-lidergoa** onartuz.
- Etorkizunerako jokatzekak eta erakundeak garen aldetik dugun erantzukizun handiak gure ohiko jarrera indibidualak aldatzera eta LAGUNTZERA eraman beharko gintuzkete, egungo desoreka asko gainditzen diren eta herrialderik aurreratuenen artean egotea lortzen den gizarte-sistema berri bat egiteko abangoardian kokatzeko.
- Beste alde batetik, unibertsitateen funtzionamendu erkide batek gainontzeko hezkuntza-sistemak aurrera egin dezan asko lagunduko luke.

5.3 ELKARREKIN EGITEKO JARDUEREN PROPOSAMENA

- Elkarrekin egin beharreko ekintza hasteko, nire ustez, planteatu daitezkeen arloak honako hauek dira:
 - Heziketa berritzeko proiektuak.
 - Ikerketa lehiakorra eta osagarria.
 - Zenbait zerbitzu.
- * **HEZIKETA BERRITZEKO PROIEKTUAK**.....
 - Mondragon Unibertsitatearen *Mendeberri* Proiektuaren antzera, badira beste proiektu eta esperientzia batzuk unibertsitateetan egindakoak eta oso interesgarria litzateke konpartitzea, esperimentatzea eta, horien definizioari eta garapenari dagokienez, laguntzea.

- Alor honetan denok ari gara ikasten eta, gainera, Euskal Herriak heziketaren kontzeptu berri baten diseinuan batera aurrera eginez gero, Herriaren garapenerako hain interesgarria den unibertsitateen euskal sistema sortuz joan gitezke.
- Elkarrekin egindako ekintzak Europako organismoen aurrean proiektu berritzaileak planteatzea ahalbidetuko liguke, eta horrela organismo horien laguntzaz ikerketa eta esperimendazioa ezaugarri izango lituzketen esperientzia aurreratuak burutu ahalko genituzke.
- Dimentsioak adituak edo ikerlan espezializatuak kontratatzea ahalbidetuko luke, horiek bakarka ezin egin daitezkeelarik.
- Eusko Jaurlaritzak lidergoa eta protagonismoa eduki litzake horrelako saiakera batean eta finantziazioan ere lagundu lezake.

*** IKERKETA LEHIAKORRA ETA OSAGARRIA.....**

- Ikerketa eta irakaskuntza modu estu-estuan doaz batera, batez ere, aldaketa-une hauetan. Unibertsitateak ez du bere helburua beteko, ikertzen ez badu eta irakaskuntzan izpiritu berritzailea sartu ezean.
- Unibertsitateetan dagoen ikertzeko ahalmena oso garrantzitsua da eta gero eta bilakatuagoa. Irakaskuntza-arloak, ikasleek benetako problemak konpontzen eta ikerketa-proiektuetan parte hartuz, bere enfokea aldatzen duenean aipatu ahalmen hori izugarri handituko da.
- Unibertsitatea gizartearen garapen orekatuan parte hartzen duen gizarte-eragilea izanik, ikerketa-ahalmena orientatzea eta bideratzea beharrezko lanetako bat da. Hori burutzeko dago eta administrazioaren eta unibertsitate-estamentuaren laguntza eta kontsentsua beharrezkoak dira lan hori burutuko bada.
- Unibertsitateen Euskal Kontseilua izan daiteke unibertsitate-ikerketaz eztabaidatzeko eta sustatzeko organoa, unibertsitateen planteamenduek eredu koherente batean bat egiten dutela. Unibertsitate-ikerketaren eredu, Euskal Herriko ikerketako eta berrikuntzako sistema globalean, ezartzea izango litzateke helburua.
- Horrelako gai batean aurrera egiteko aztertu beharko liratekeen eta eurretaz akordio batera heltzea beharrezkoa izango litzatekeen zenbait irizpide jasoko ditugu jarraian.

➤ Unibertsitatearen ikerketaren helburuak

- Hiru dira unibertsitate-ikerketaren oinarritzko helburuak, ikerketa-proiektuetan beren-beregi aipatuta gelditu beharko liratekeenak:
 - a) Zientzia eta ezagutza sortzea eta nazioarteko komunitate zientifikoaren garapenerako laguntza ematea.
 - b) Hezkuntza-prozesua eta edukiak berritzea, irakaskuntza-arloan ikerketaren emaitzak eta ikertu beharreko arlo eta galdera berriak sartuz.

c) Gizarteari ikerketaren emaitzak helaraztea, haren garapenerako laguntza emanaz eta ikerketa eta garapena orientatzeko haren beharrak, gabeziak eta problemak jasoz.

- Ikerketa garestia da eta helburuak argi eta garbi adierazita eduki behar ditu. Unibertsitate-ikerketarako edozein proiektuk seinalatutako helburuei erantzun behar die, segur aski bere hiru alderdietan, baina beti irakaskuntza-arloaren berrikuntza kontuan hartuta.

➤ **Ikerketa-mailen arteko oreka**

- Erabaki politikorik garrantzitsuenetako bat ikerketa-mota guztien eta Herriaren bokazioaren arteko oreka definitzea da, ezagutza zientifikoaren inguruko oinarritzko ikerketatik garapen sozio-ekonomikoan lagunduko duen aplikaziora zuzendutako ikerketaraino ekin ahal izateko.
- Idatzitako muga portzental zehatzak ezarri ezin badaitezke ere, maila horietako bat ere ahaztuta utziko ez duen gure unibertsitate-sistema berriaren oinarritzko eredia ezartzea beharrezkoa da.
- Eredu teoriko honek aldaketak izan ahal izango ditu denboran zehar, bere parteetako bati edo besteri garrantzi handiagoa eman nahi dakionaren arabera, unibertsitate-politikaren elementu garrantzitsua izanik.
- Ezarritako eredia unibertsitate guztien “eredu integratua” da, horietako bakoitzean ezberdina delarik. Horrela bada, bokazio berezi eta osagarriak ezarriko dira. Unibertsitate batzuetan gizartearen zerbitzura aplikatutako ikerketarantz zuzenduko dute jarduera eta beste batzuetan oinarritzko ikerketak protagonismo portzental handiagoa izango du.

➤ **Proiektuen definizioa, jarraipena eta kontrola**

- Ikerketa-proiektu baten alde aurretiko definizioa, helburuak, etapak, mugarriak, aurrekontuak eta finantziak jasotzen dituen definizioa, behar-beharrezkoa da proiektu horretara finantziak publikoak bideratuko bada.
- Argi dago oinarritzko ikerketaren arloko proiektuetan zailagoa dela proiektuaren baldintzak zehaztasunez ezartzea eta kasu horretan aurrekontua esleitzeko irizpidea gaiaren garrantzian eta ikertuko duen taldearen esperientzia eta sinesgarritasun egiaztatuan oinarrituta egongo da.
- Kasu guztietan proiektuen jarraipena eta kontrola burutuko dira, eraginkortasuna aztertuz.
- Unibertsitateak alde egin behar du ikerketarako finantziak ekoizteko; hau da, helburuak eta kontrolerako bitartekoak definituta egon gabe, pertsonei eta lantaldeei baliabideak ematen zaizkien eta banaketa orekatua helburu duen horretatik.

➤ **Proiektu lehiakorak**

- Gure unibertsitateetan aurreko orrialdeetan aipatutako berez erregulatzeko prozesua edo bidera behartzen duen eraginkortasuna zuzentzeko barne-mekanismoa sartzan hasi daiteke ikerketarako eta berrikuntzarako baliabideak esleitzeko lehiaren bidez.

- Hori funtsezko kontzeptua da, publiko-pribatu dikotomia gainditu eta kalitatearen aldeko hautaketaz ordezkatu behar duena. Ikerketa-taldearen arteko lehia garbia da, unibertsitatea, fakultatea edo ikastetxea zein den kontuan hartzen ez duena eta “txokolatea denontzat” leloaren ordezkari kalitatea lehenetsi egiten duena.
- Proiektuen neurketa eta kualifikaziorako zenbait sistema daude, haien tipologiaren arabera:
 - . Ebaluatzeko talde aditu eta independenteak.
 - . Entitate pribatuen partaidetza edo autofinantziazio-mailak.
 - . Alderdi biak kontuan hartzea.
- Ikerketa-proiektuen lehia-sistema sortzea gure unibertsitate-sistemaren parte da.

➤ **Proiektu kooperatiboak**

- Departamentuen arteko, unibertsitateen arteko eta Herriko ikerketa-alarreko beste entitate batzuekiko lankidetzak lorpen handiak ekar ditzake, proiektu jakin batzuei ekiteko dimentsio egokia sortuz, talde bakoitzeko orientabideaz, bokazioaz eta esperientziaz baliatuz.
- Lehia badago ere, lankidetzak sustatu behar da proiektu lehiakorrek lortzeko.

* **ZENBAIT ZERBITZU**

- Atal honetan proiektu asko eta asko planteatu litezke, proiektu horietan lankidetzak gure unibertsitate-sistemari lehiatzeko abantailak sortzen dizkiola.
- Garrantzitsuenetako bi aipatzeagatik, honako hauek aipatuko ditugu:
 - Liburutegiak eta informazio-zerbitzuak konpartitzea.
 - Helburuak eta kalitatearen ebaluaketa konpartitzea.
- Bi gai horietan unibertsitatearen arteko lankidetzak onurak lortuko lituzke.

5.4 LABURBILDUZ

- Unibertsitatearen Euskal Kontseiluaren funtsezko helburua berrikuntzaren eta alde aurretiko iragarpenaren arteko loturak ezartzean lezake, eta hori honako hauek kontuan edukita:
 - *Etorrizuneko perspektiba bat egitea.*
 - *Zalantza kudeatzea.*
 - *Harremanak garatzea.*
 - *Berrikuntzaren inguruan elkarren arteko harremanetarako plataforma berriak garatzea (Greg Tegart).*

- Horrek eskatuko luke unibertsitateen zuzendaritza korporatibo bat ezartzea, itunen bidez eta erabakitako arloetarako, administrazio publikoekin modu estuan elkarlanean.
- Euskal gizarteari etorkizunari begira benetako unibertsitate-proiektua eskaintzen dion denon borondate itundutakoa eta parte bakoitzaren autonomia bateragarriak lirateke.
- Gure hezkuntza-eredua berritzeari indartsu ekingo litzaioke, gizartearen beharrianetara egokituko ginatekeela.
- Ikerketa-eredu lehiakorra sortuko litzateke, gizartearen zerbitzuan egonda proiekturik onenak aukeratuz.
- Unibertsitate guztientzat aberasgarriak izango liratekeen lankidetzak sortuko lirateke.

6. LABURPENA ETA ONDORIOAK

- Etorkizuna aurrez ikusteko zailtasunak eta aldaketen aurrean ezer egin gabe jarraitzea den zentzugabekeriak perspektiba bat egitera eta zalantzazko egoera kudeatzera eramane behar gaituzte.
- Egindako lanaren helburuak aldaketez ohartaraztea, dauden jarrerari buruz azterketa egitea eta unibertsitateko alternatiba bat proposatzea dira; labur esanda, gure oinarrien gainean etorkizuna enfokatu beharraz kontzientzia hartzea.
- Badira aldaketen baldintzak eta faktoreak aztertu dituzten lan asko, baina aholku horiek orain arte eragin txikia izan dute indarrean dagoen sisteman.
- Gure garaian, egun hauetan, gizartean aldaketa estruktural handiak gertatzen ari dira eta garai iraultzaile baten aurrean kokatzen gaituzte aldaketa horiek. Horrek egitura eta balore berrietan oinarritutako sistema berri batera, bestelako gizarte batera, eramaten gaitu, nahitaez.
- “Teknozientziaren” bat-bateko garapenak ez du berekin ekarri gizartean eragina duten funtsezko beste alderdi batzuen antzeko eta aldi bereko garapena; hala nola, filosofia eta ideologiarena, kulturarena, baloreena eta abarren garapena. Eta horiek guztiek aldaketa bideratu eta zuzendu beharko lukete. Hezkuntza-sistemak eta, bereziki, unibertsitateak esku hartu behar dute faktore horietan, zientziarena eta teknologiarena baino ez den garapen batean erori gabe; hau da, balore etikoak eta gizarte-mailakoak landuz.
- Horrek guztiak oreka berri batera garamatza, hezkuntza-ereduan zuzenean eragina duen gizarte-sistema berri batera. Oraingo eredia gizarte estatiko eta ezagun baterako egokituta egon da.

Eredu berriaren eskakizunek hezkuntza-oinarri eta parametro berriak behar dituzte.

- Sortzen ari den gizarte berriaren heziketak izan beharko dituen ezaugarriak seinalatu dituzten azterlan interesgarriak daude. Azterlan eta ikerlan horietatik honako hauek nabarmendu behar ditugu:
 - Heziketari buruzko Nazioarteko Batzordearen Txostena (Delors txostena).
 - Goi-mailako heziketari buruzko Mundu-mailako Biltzarra (Unesco).
 - Boloniako Adierazpena.
 - Zenbait esperientzia aurreratu.
 - Mondragon Unibertsitatearen *Mendeberri* Proiektua.
- Lan hauek guztiek burutu beharreko lan berriaren nondik norakoak seinalatzen dizkigute, baita aldaketaren beharra azpimarratu ere. Baina gure gizartean problema ez da beharri edo orientabideari buruzko ezaguerarik eza, problemaren aurrean hartzen diren jarrerak baizik.
- Erreakzionatu behar duen lehen estamentua hezkuntza-estamentua da, beroni baitagokio ezaguna den bere oraingo jarrera aldaraziko duten aldaketa sakonak sartzea. Ezaguna aldatzeak eta era berean ezezagunean sartzeak jarrera ausartak behar ditu. Hiru jarrera-mota bereiz ditzakegu:
 - Erreaktiboak (aldaketaren aurkakoak)
 - Pasiboak (eramaten uztea)
 - Proaktiboak (aldaketa gidatzea)

- Jarrera proaktiboak hartu beharra planteatzen da, benetako “KONSTITUZIO BERRIA EGITEKO GARAIA” sortuz, oraingo sistema zalantzan jartzeko eta berri bat diseinatzeko.
- Kontuan hartzeko beste elementu bat hezkuntza-sisteman “berez erregulatzeko mekanismoak”, edo zaharkitzen edo atzean gelditzen ari den erakunde bat besterik gabe aldatzera behartu dezaten faktoreak, ez egotea da.
- Berez erregulatzeko mekanismoak sortu eta hezkuntza-entitateen egiturak aldatu beharra dago.
- Erakunde publikoen jarrera aldaketa-une hauetan erabakigarria da eta egoeraz kontzientzia argia eduki dezatela eta berrikuntza-giroaren aldeko jarrera sortzeko aldaketen aurrean lidergoa har dezatela eskatu behar zaie.
- Euskal Herriko unibertsitate-sistemak protagonismo garrantzitsua izan dezake une hauetan, hala bere eraldaketari dagokionez, nola sistema guztiaren eraldaketarako erreferentzia izateari dagokionez.
- Egin beharreko lehen planteamendua izan nahi dugun Gizarte Ereduari erantzuteko nahi dugun Unibertsitate Ereduaren ingurukoa da. Zeregin zaila eta funtsezko ezaugarriak komunak ezartzeko azterketa sakona behar duena.
- Unibertsitateen Euskal Kontseilua proposatzen da, kontsulta-organo batek tradizioz izan dituen eginkizunak eta “zuzentzeko” eginkizun berriak batu ditzana. Artezteko edo zuzentzeko azken eginkizun hauek autonomoak izanik parte hartzea erabakitzen duten entitateen itun edo akordio baten bidez ezar litezke.
- Ereduaren eta kudeaketa-organo komunaren definizioak elkarren arteko harremanen sistema bat eratzerara eraman behar gaitu. Lan honetan horiek zehazteko honako hauek aipatuko ditugu:
 - Heziketa berritzeko proiektuak.
 - Ikerketa lehiakorra eta osagarria.
 - Zenbait zerbitzu.
- Azkenik, oraingoa ez dela beste egoera iragankor bat azpimarratu nahi nuke. Hau da, ez da egokitzeko zailtasun handiagoa edo txikiagoa duen beste egoera iragankor bat, lehena eta geroa marka dezan jauzi kualitatibo garrantzitsua behar duen egoera baizik.
“Etengabeko hobekuntza” beti aplikagarria izanik ere, gaur egun ez da nahikoa eta sistemaren funtsa errotik aldatu dezaten aldaketa sakonak behar dira.

Javier Retegui Ayastuy
Arrasaten, 2001eko abuztuan.

1. SARRERA	1
2. ALDAKETARAKO FUNTSEZKO FAKTOREAK – OREKA BERRIA	3
2.1 Informazio-gizartea (NTIC's).....	3
2.2 Iraultza zientifiko eta teknikoa.....	4
2.3 Globalizazioa, mundualizazioa.....	5
2.4 Prestakuntza eta informazioa gizarte guztira helaraztea	6
2.5 Oreka berria. Gizarte-sistema berria.....	7
2.6 Gizartearen garapen orekatua	8
2.7 Eragina heziketa-prozesuan	10
3. HEZIKETAREN KONTZEPTU BERRIAREN EZAUGARRIAK	11
3.1 Heziketari buruzko Nazioarteko Batzordearen Txostena (Delors txostena).....	11
3.2 Goi-mailako heziketari buruzko mundu-mailako biltzarra (Unesco, Paris).....	12
3.3 Europako espazio erkidea	14
3.4 Esperientzia aurreratuak.....	15
3.5 <i>Mendeberry</i> Proiektua (Heziketa Ereduaren Berringeniaritza)	15
4. JARRERAK ALDAKETAREN AURREAN	21
4.1 Hezkuntza-estamentuen jarrerak	21
4.2 Berez erregulatzeko mekanismoak.....	23
4.3 Erakunde publikoen zeregina	23
5. UNIBERTSITATERAKO PROPOSAMENA	25
5.1 Unibertsitate-eredua. Epe luzeko helburu komunaren definizioa.....	25
5.2 Unibertsitateen Euskal Kontseilua. Sistemaren organo erkidea	27
5.3 Elkarrekin egiteko jardueren proposamena.....	27
5.4 Laburbilduz.....	30
6. LABURPENA ETA ONDORIOAK	32

HEZIKETA MILURTEKO BERRIAN – GIPUZKOA 2020

2001eko ABUZTUA

FILOSOFIA
IDEOLOGIA

GIZA, GIZARTE ETA
POLITIKA ZIENTZIAK

TEKNOZIENTZIA

HEZKUNTZA

GIZARTEA

KULTURA
BALOREAK

PERTSONAK, NORBANAKOAK, SUBJEKTUAK
ERAKUNDEA

OINARRI MATERIALA ETA BALIABIDEAK